

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Hitzarmena onestea eta etxez etxeko laguntza zerbitzua kudeatzeko ardura ematea

Oiongo Udalak erabaki du onestea udalak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren alorrean di-tuen eskumenak Arabako Foru Aldundiaren esku uztea zehazten duen hitzarmena formalizatzea eta zerbitzu hori osorik eskaintzeko ardura Arabako Foru Aldundiari ematea. Hasiera batean onetsitako ordenantzaren estua web orri honetan dago aztergai: www.ayuntamientodeoyon.com

Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako bi hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio auzietarako jurisdikzioaren Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Dena den, horren aurretik eta nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, iragarki hau argita-ratu eta hurrengo egunetik aurrera, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legeak 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik. Erreferentzia alfanumerikoa: Bo180511A.

Oion, 2018ko maiatzaren 9a

Alkatea

EDUARDO TERROBA